

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI GAZTETXEA

Auzolana gaur, bukatzeko

Gaur bukatuko dira, Kontrakan-tza gaztetxean, Gipuzkoako Gaz-tetxe eta Gazte Asanbladen To-paketak. Eta bukatzeko, bi zita jarri dituzte: gosaria 10:00etan, eta auzolana 11:00etan. ||

■ HERNANI BITERI

Antzerki ziklorako sarrerak, bihartik

Apirilaren 2tik 4ra izango da antzerki zikloa, Biterin, hiru antzezlanekin: *Ghero*, *Espacio disponible* eta *Erlauntza*. Eta sarrerak, bihartik aurrera egon-go dira salgai, Biterin bertan: sarreren erdia goizean (09:00-13:00), eta beste erdia arratsaldean (16:00-20:00). Saio bakoitzeko, 7,5 euro dira. ||

■ HERNANI UDALA

Plenoa, etzi

Asteartean egingo du Plenoa Udalak; 19:00etan, pleno are-toan. Besteak beste, landuko dute Udalaren partehartzea, Berri-Buruntzako tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitate baten sorreran. Aurretik, Tokiko Gobernu Batzor-dea bilduko da bihar, 09:00etan; eta Hirigintza eta Ingurumen Batzordea etzi, 18:00etan. ||

■ HERNANI PALA

GRAVNI torneoan gaur, lau hernaniar

Lau palista hernaniar deitu ditu Gipuzkoako selekzioak, GRAVNI torneoan aritzeko, trinketean. Iruran ariko dira gaur: Ekhiñe Balerdi eta Garazi Urdangarin jubenetan, eta Ariane Arrieta eta Maider Huizi nagusietan. ||

■ PARKETXE SAREA

Gaztandegira, beste bisita bat

Atzo egin zuten Adarrazpi gaztandegira bisita gidatua, Xoxo-kan, Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatuta. Plazak bete zirenez, beste saio bat antolatu dute, martxoaren 31n, 11:00etan. Apuntatzeko: 943 49 50 69, 688 895 068, edo arditurri@gipuzkoamendizmendi.net. ||

■ HERNANI ERRUGBIA

«Taldea elkartuta eta pilak jarrita», beharrezko garaipenaren bila gaur

Alcobendas hartuko du Hernanik, Landaren, eguerdiko 12:00etan hasita. Azkeneko hilabetean partidurik ez, eta gogotik egin dute lan trikoloreek, azkeneko lau partiduetan mailari eusteko.

«ZORIONEZ edo zoritxarrez, gu eta afizioa ohituta gaude, azkenera arte zalantza horretan ibiltzera», onartu du Beñat Iradik, Hernaniko kapitainak. Lau partidu falta direnean, mailari eusteko lehian bete-betean dago sartuta talde trikolorea, eta gogor borrokatu beharko dute, datorren urtean ere Ohorezko Mailan egoteko. Horretarako

aurreneko lehia, gaur izango dute, etxean. Alcobendas talde madrildarra hartuko dute Landaren, eguerdiko 12:00etan.

Sailkapenean 10garren, eta La Vila eta Gernikarekin bi eta sei punturen aldearekin, garaipen bat lortu beharra dauka Hernanik, ezinbestean. Asmo horrekin aritu dira lanean, azkeneko hilabetean, partidurik

izan ez dela aprobetxatuz: «taldea elkartu eta pilak jarri ditugu. Azkeneko lau partiduetan, taldeak guztiz bat egitea izango da giltza», dio Iradik.

Lau partidu zail, bukatzeko

Partidu guztiak izan ohi badira zailak, bereziki gogorak dira Hernanik izango dituen kontrarioak, azkeneko lau hauetan:

Alcobendas eta Ordizia izango ditu bisitan Landaren, eta Independiente eta El Salvadorren zelaietan aritu beharko du. Horregatik, edozein aukera dauka aprobetxatu beharra, eta garaipena, gaur bertan lortzea espero dute. Horretara ohituta daudenez, jokalariek eta zaleek behintzat, dena eman-go dute, hala izan dadin. ||

■ HERNANI UDAL LIBURUTEGIA

Komikiei buruzko solasaldien estreinako saioa, asteartean Udal Liburutegian

Egitasmo berria jarriko dute martxan, eta Alai Zubimendik gidatuko ditu, 20:00etan. Aurrenekoan, 'Miguel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak' komikiaz ariko dira, Dani Fano egilea bertan dela.

LITERATUR solasaldien haritik tiraka, egitasmo berri bat jarriko du martxan Hernaniko Udal Liburutegiak, datorren asteartean: estreinako saioa izango dute, komikiei buruzko solasaldiek. Arratsaldeko 20:00etan izango da, Udal Liburutegian.

Alai Zubimendi komikilari hernaniarrak gidatuko ditu, komikiei buruzko solasaldiak. Eta aurrenekoan, Dani Fano donostiarraren komiki-liburuari buruz ariko dira: *Miguel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak*. Eta egileak berak ere, solasaldian parte hartuko du: «aukera paregabea izango da, berarekin solasean aritzeko».

Zortzi urte eman ditu Fanok, liburu horretan lanean, eta 1905ean El Salvadorren jaio zen ekintzaileari buruz, lan mardula osatu du. Koldo Izagirik euskeratu du.

Komikiaren hainbat ale dauzkate Udal Liburutegian bertan, nahi duenak mailegutan hartzeko, eta «ikus, irakurri eta ukitzeko».

'El regreso del caballero oscuro', maiatzean

Komikiei buruzko bigarren solasaldia, maiatzaren 2lean izango da: Frank Millerren *El regreso del caballero oscuro* komikiaz ariko dira, orduan. ||



Abenduan, Gaueko komiki dendan aurkeztu zuen liburua, Dani Fanok.

MARITXIPI eta AMATXO

Nola azaldu ume bati kartzelan jaio dela? Nola azaldu ume bati, hiru urte betetzear, beretzat natural eta berea den espazio bat utzi behar duela?

IPIINAREN AURKEZPENA + IPIINAREN KONTAKETA (Joxemari Carrererekin)

Martxoaren 27an | 18:00

Biteri kultur etxea

Joxemari Carrere
Mikel Orbegozo

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...

MAPFRE ASEGURUAK

Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskainet.net

JOXE MARI
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Asteleheneetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

sulabe

Valella
okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

TAXIAK: 943 550093 **UDALTAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 **Korrea Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 33110 **Egunez:** Tanco URNIETA Idiazabal, 39 **943 550942** Gaez: Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022**

EGURALDIA **GAUR** Berdintsu jarraituko du gaur. Zeru urdin egongo da ia egun osoan, baina iluntzean lainoak sartu daitezke. Haizea xuabe ibiliko da, ipar-ekialdetik arratsaldean. **Min.8° / Max.18°** **BIHAR** Aldaketak, bihar. Lainoak ugartu egongo dira, eta giroa tristeagoa izango da. Baliteke xirimiri pixka bat egitea ere. Iparaldeko haizearekin, frexkatu egongo du. **Min.8° / Max.14°** (euskaime)

HERNANI LABURBIRA

Euskerazko bederatzi film labur, ostegunean Sandiusterrin

Aurtengo Laburbiraren emanaldia eskainiko dute, arratsaldeko 18:30etan, Dobera Euskara Elkartek antolatuta. Ordu eta erdiko saioa izango da.

DATORREN astean egingo du geldialdia Laburbirak, Hernanin, Dobera Euskara Elkarteen eskutik. Ostegunean izango da, arratsaldeko 18:30etan hasita, Sandiusterrin.

Bederatzi film labur eskainiko dituzte, denak euskeraz, «kalitatezkoak eta dibertigarriak, euskerazko film laburren zaleei merezi duten gozatua emateko», aurreratu dute Laburbiratik. Ordubeteko saioa

izango da, eta sarreraren truke, borondatea bakarrik eskatuko dute.

Egile gehienak, emakumeak Laburbirak nabarmendu du, aurtengo filmen egile gehienak, emakumeak direla; zehazki, zazpi dira emakumeek egingandakoak, eta zortzigarren bat, gizon eta emakume banarena. Hauek dira filmen izenburuak eta egileak: *Begi ninien koreo-*

grafia (Arrate Fernandez), *Shell Phone* (Miren Mujika), *Zapatak* (Irati Murua), *Ama* (Josu Martinez), *June* (Arantza Ibarra), *Hotzean garbitu* (Maddi Barrenetxea eta Marta Teijeira), *Ilunpean* (Iker Maguregi eta Andrea Martinez), *Erroak* (Ane Zuazubiskar), eta *Handiak eta txikiak* (Laida Ruiz).

Horiei buruzko informazio gehiago, www.kameratoia.eus webgunean dago ikusgai. ||

HERNANI ATLETISMOA

Guerrero ahizpak podiumean, Gipuzkoakoan

Udaberriko Lasterketa izan zen aurreko igandean, Donostian. Baina jokoan zegoen Gipuzkoako Txapelketa ere, 10 kilometroko distantzian; eta podiumean izan ziren Guerrero ahizpak: bigarren izan zen Maitane (39:08), eta hirugarren Hoki (39:18), Ane Zabala irundarraren atzetik. Lasterketako sailkapenean, berriz, laugarren eta seigarren izan ziren bi ahizpak. ||



Maitane eta Hoki Guerrero, bi alboetan, Ane Zabala irundarrarekin.

JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Asteburuetako desordena Kaxkoan

Kaxkoko asteburuetako desordenaren erantzuleen bila gabiltza, horrek eragiten baitu Hernani izendatzea legerik gabeko hiri, non denak balio duen, eta edozer egin daitekeen. Horren inguruan duten iritzia galdetu diegu Udaltzaingoaren agente batzuei, eta erantzun digute, esaten dietena egiten dutela; aginduak goitik jasotzen dituztela, eta horietara mugatu behar direla haiek.

Hortaz, Udaltzaingoaren buruari eta herriko alkateari galdetzen diegu: zuek zarete erantzuleak, agenteek ez aplikatzeko Herritarren Elkarbizitzarako eta Kaleen Erabilera eta Garbi-

tasunerako Udal Ordenantza?

Hona hemen, ordenantzaren 1go kapituluko hiru artikulua:

7. artikulua. Drogen eta edari alkoholikoen kontsumoa: debekatuta dago edariak saldu edo zerbitzatzea, ostalaritza establezimenduetatik kanpo kontsumitzeko, terrazetan edota bestelako instalazioetan izan ezik, Udalaren baimenarekin.

10. artikulua: debekatuta dago kalea zikindu dezakeen edozer egitea; eta bereziki, debekatuta dago edalontziak, botilak eta freskagarrien edukiontzia kalean uztea edota botatzea.

33. artikulua. Arau-haustea: arau-hauste arinak izango dira 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17 eta 29 artikuluetakoak; botilak, bote-

llinik, edalontziak eta freskagarrien edukiontzia botatzea, 200 euroko isuna. Arau-hauste larriak izango dira 7, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 30 eta 31 artikuluetakoak; 751 eta 1.500 euro arteko isuna.

Alkate jauna, kargua utziko duzu, zure zortzi urteetan artikulua horiek asteburu bakar batean ere betearazi gabe? Oker gaude, esaten badugu ez dituzula bizilagunak errespetatzen, zurea guardiako epaitegikoa dela, lotsagarrikeria hutsa, eta Kaxkoko desordenaren erantzule zarela?

Marie Claire Aduriz
Martinez
Kaxko hobetu

HERNANI UDALA

Bilera ostegunean, lokal hutsen jabeekin

Arratsaldeko 17:00etan izango da, udaletxean, 'Guztion' izeneko egitasmo berria azaltzeko.

GUZTION egitasmoa jarri du martxan Hernaniko Udalak, jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz. Horretarako, batetik, Hernanin hutsik dauden lokalen azterketa egin nahi du, erabilgarritasun maila zehazteko; eta bestetik, lo-

kalen poltsa publikoa osatu, negozioa irekitzeko lokal bila dabilzanekin zubilana egiteko.

Hori guztia azaltzeko, bilera deitu du datorren ostegunean, hutsik dauden lokalen jabeekin; 17:00etan, udaletxe-ko areto nagusian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **ANTTONI EGAÑA ARAMBURU**
(Jose Mendiolaren alarguna)
Herenegun hil zen, 101 urte zituela
- Goian Bego -



Seme-alabak: Ricardo, Yone eta Fernando, Arantza eta Rafael, Kamen eta Mikel, Maria Jose eta Manolo; bilobak, birlobak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek. Eta Juana Claudia Mendoza.

Benetan eskertzen dizuegu **ATZO, LARUNBATA, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan bere animaren alde egin zen hiletara etorri zineten guztiok.

Hernanin, 2019ko martxoaren 24an

ANTTONI EGAÑA ARAMBURU
(Joanes Larretxea preso politikoaaren amona)
Besarkada bat familiari.

HERNANIKO PRESO ETA IHESLARIEN SENIDE ETA LAGUNAK

Hernanin, 2019ko martxoaren 24an

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean, 75m karratu eta bi logela. Deitu arratsalde: **618 847 338**
Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria guztia prest. Bezero kartera haundia eta errentagarritasun frogagarria. Deitu: **656 709 251**
Balantxa liburudenda traspasoan, jubilazioagatik. Deitu: **676 864 407**
Langile bat behar da SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, ahal bada esperientziarekin. Interesatuak deitu **943 690 643**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Latxe



Urumeako ur-ttikitan barrera

8. alea kalean!

latxekronika.eus
943 33 08 99